Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko uztailaren 17a, ostirala — 134 — Viernes, a 17 de julio de 2026

BESTE BATZUK — 7 — OTROS

## FUNDACIÓN CRISTINA ENEA FUNDAZIOA

*Cristina Enea Fundazioarako Kultura- eta Erakusketa-Proiektu Teknikari bat hautatzeko prozesuaren oinarriak.*

2026ko ekainaren 24ean Cristina Enea Fundazioaren Patronatoak, beste batzuen artean, erabaki hauek hartu zituen:

*Lehena.* 2026ko ekitaldiko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzea, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen Hogeita Bigarren Xedapen Gehigarrian araututako ohiko birjarpen-tasa aplikatuz (2024, 2025 eta 2026. urteetarako luzatua). Eskaintza horren barruan sartzen da Kultura- eta Erakusketa-Proiektu teknikariaren lanpostuaren zuzkidura bat (A1 Azpitaldea, Goi-mailako teknikarien Klasea) lan-araubide mugagabean kontratatzea, eta Donostiako Udalaren egoitza elektronikoan eta Fundazioaren web-orrian argitaratzeko agintzea.

*Bigarrena.* 2026ko ekitaldiko Enplegu Publikoaren Eskaintza gauzatzearen ondoriozko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarriak (erantsiak) onartzea.

*Hirugarrena.* Zuzendari-Kudeatzaileari ahalmena ematea 2026ko ekitaldiko lan-eskaintza publikoa gauzatzeko behar diren erabaki guztiak har ditzan. Hala, besteak beste, hautaketa-prozesuaren deialdia onartzeko eta argitaratzeko, bai eta beste deialdi bat egiteko ere, hautaketa-prozesua hutsik geratzen bada. Oinarriak aldatzeko ahalmena izango du, behar den guztian, eta horren berri emango die Patronatuko kideei, haien adostasuna eskatzeko.

*Laugarrena.* Zuzendari-Kudeatzaileari ahalmena ematea, fundazioko Presidentearekin batera, hautatutako pertsonarekin lan-kontratu mugagabea sinatzeko.

Donostia, 2026ko ekainaren 24a.—Jose M.ª Hernandez Gomez, zuzendari-gerentea. (4684)

*Lehenengo oinarria. Deialdiaren xedea.*

Deialdi honen xedea da Cristina Enea Fundazioaren (aurrerantzean, Cristina Enea) Kultura- eta Erakusketa-Proiektu Teknikaria lanpostua mugarik gabe betetzeko pertsona bat kontratatzea.

Kontratazioa lanaldi osoko kontratu mugagabe bat formalizatuz egingo da, Cristina Enea ko langileen lan-baldintzen mende, eta probaldia gainditu beharko du. Probaldiak 6 hilabete iraungo du.

Deialdia publikoa eta irekia izango da, eta hautaketa-prozesua dokumentu honetan jasotako betekizunei eta berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioei jarraiki egingo da.

Hautaketa-prozesuaren deialdia Cristina Enearen webgunean, hautaketa-prozesuan Cristina Eneari lagunduko dioen enpresaren weborrian eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

## FUNDACIÓN CRISTINA ENEA FUNDAZIOA

*Bases del proceso de selección de un/a Técnico/a de Proyectos Culturales y Expositivos para Fundación Cristina Enea.*

El Patronato de Fundación Cristina Enea, con fecha 24 de junio de 2026, entre otros, adoptó los siguientes acuerdos:

*Primero.* Aprobar la Oferta de Empleo Público correspondiente al ejercicio 2026, en aplicación de la tasa de reposición ordinaria regulada en la Disposición Adicional Vigésimo Segunda de la Ley 31/2022, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2023 (prorrogada para los años 2024, 2025 y 2026), en la que se incluye la contratación, en régimen laboral, por tiempo indefinido, de una dotación del puesto de Técnico/a de Proyectos Culturales y Expositivos (Subgrupo A1, Clase Técnicos/as superiores); y ordenar su publicación en la sede electrónica del Ayuntamiento de San Sebastián y en la página web de la Fundación.

*Segundo.* Aprobar las bases (adjuntas) por las que se habrá de regir el proceso de selección derivado de la ejecución de la Oferta de Empleo Público correspondiente al ejercicio 2026.

*Tercero.* Facultar al Director-Gerente para que adopte cuantas decisiones requiera la ejecución de la Oferta de Empleo Público correspondiente al ejercicio 2026. Así, entre otras, para la aprobación y publicación de la convocatoria del proceso de selección, así como para que proceda a realizar una nueva convocatoria en el supuesto de que el proceso de selección se declarase desierto, facultándole para la modificación de los bases en lo que resulte preciso, de lo que informará a los y las miembros del Patronato con el objeto de recabar su conformidad.

*Cuarto.* Facultar al Director-Gerente, mancomunadamente con el Presidente de la fundación, para la suscripción con la persona que resulte seleccionada del correspondiente contrato laboral, con carácter indefinido.

San Sebastián, a 24 de junio de 2026.—El director-gerente, Jose M.ª Hernandez Gomez. (4684)

*Base primera. Objeto de la convocatoria.*

Es objeto de la convocatoria la contratación, con carácter indefinido, de una persona que ocupe el puesto de Técnico/a de Proyectos Culturales y Expositivos para Fundación Cristina Enea (en adelante, Cristina Enea).

La contratación se realizará mediante la formalización de un contrato indefinido a jornada completa, sujeto a las condiciones laborales del personal de Cristina Enea, sin perjuicio de la necesaria superación del período de prueba, que tendrá una duración efectiva de 6 meses.

La convocatoria será pública y abierta, y el proceso de selección se realizará ateniéndose a los requisitos recogidos en este documento y a los principios de igualdad, mérito, capacidad y publicidad.

La convocatoria del proceso de selección se publicará en la página web de Cristina Enea, en la de la empresa que auxilie a Cristina Enea el proceso de selección y en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2026-04684

Lanpostuaren eduki orokorra:

Zuzendari-Kudeatzailearen ikuskaritzapean menpe egongo da eta lanpostuari esleitutako honako eginkizun hauek izango ditu, besteak beste:

— Kultur proiektuen formulazioa eta jarraipen operatiboa, propioak edo kolektibo eta erakundeekin elkarlanean egindakoak.

— Lerro editorialaren koordinazioa. Aldi baterako erakusketen egutegia diseinatzea, erakusketen zesioa eta alokairua kudeatzea eta ekoizpen propioko erakusketak sortzea.

— Erakusketa-guneetara egingo diren bisiten egutegia kudeatzea, eraginaren eta emaitzen jarraituz.

— Zuzendaritzak adierazten dituen eta espezifikoki deskribatuta geratu ez diren bere konpetentziaren eremuko funtzio guztiak.

Lehen adierazitako zereginak ez dira mugatzaileak, eta, beraz, lanpostuaren kategoriarekin eta kualifikazioarekin bat datozen, eta adierazita ez dauden, beste zeregin batzuk egiteko prest egon behar da, baldin eta langilearen arduradunek eskatzen badituzte eta arestian aipatutakoak kaltetzen ez badituzte.

Lantokia Mandasko dukearen pasealekuko 66. zenbakian (Cristina Enea parkea) egongo da, Donostian (PK 20012).

Ordainsaria: 44.705,36 € gordinekoa da urtean (2026rako zenbatekoa, eta Cristina Enearen gainerako langileei dagozkion eguneratzeak aplikatuko zaizkio).

Lanaldia lanaldi osokoa izango da, eta urtean 1.591,74 ordukoa.

*Bigarren oinarria. Parte hartzeko baldintzak (edo gutxieneko betekizunak.*

Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izango dute, parte hartzeko eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitzen den egunean, honako gutxieneko baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen duten pertsonek:

— Nazionalitatea: Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea izatea. Beste estatu batzuetako nazionalitatea duten pertsonei dagokienez, legezko bizilekua Espainiako estatuan badute, deialdiko gainerako baldintzak bete beharko dituzte enplegua lortzeko.

— 16 urte beteta izatea eta parte hartzeko eskaera egiteko epea amaitzen den egunean erretiro arruntaren gehienezko adina ez gainditzea.

— Titulazioa: Arte Ederrak, Antropologia, Gizarte Zientziak edo antzekoetan goi-mailako titulu akademiko ofiziala izatea, kultur proiektuen kudeaketan, erakusketak sortzen eta komisariatzen, baita bere ingurumen-agiria kudeatzen esperientzia frogagarriarekin. Gizarte-mugimenduekin eta iraunkortasunarekin lotutako esparruetan prestakuntza osagarria izatea merezimendu moduan kontuan hartuko da.

— Euskara: Europako esparruko C1 maila egiaztatzeko titulua edo baliokidea duela egiaztatu beharko da, edo, hala badagokio, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskarazko hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteari buruzko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan aurreikusitako salbuespenak aplikatzeko ziurtagiria.

— Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea: gaixotasunik ez izatea eta dagozkion eginkizunekin bateraezina den muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

— Diziplina-espediente bidez edozein herri-administraziotako zerbitzutik edo autonomia-erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organoetatik bereizita ez egotea, eta enplegu edo kargu publikoan betetzen zituen eginkizunen antzekoak betetzeko erabateko desgaikuntza edo desgaikuntza berezirik ez izatea. Beste

Contenido general del puesto de trabajo:

Bajo la supervisión y dependencia jerárquica del Director-Gerente, se encargará de las siguientes funciones asignadas al puesto, entre otras:

— Formulación y seguimiento operativo de proyectos culturales, propios o en colaboración con colectivos y entidades. Coordinación de la línea editorial.

— Diseño de calendario de exposiciones temporales, gestión de la cesión y alquiler de muestras, y creación de exposiciones de producción propia.

— Gestión del calendario de visitas a espacios expositivos, con seguimiento de impacto y resultados.

— Todas aquellas funciones en el ámbito de su competencia que le sean encomendadas por la Dirección y que no hayan quedado específicamente reseñadas.

Las tareas anteriormente indicadas no son limitativas, por lo que se debe tener la disposición de realizar otras tareas, acordes con la categoría y cualificación del puesto, que no estén señaladas, cuando estas sean requeridas por los responsables del/la trabajador/a y no supongan menoscabo de las anteriormente citadas.

El lugar de trabajo estará ubicado en el paseo duque de Mandas n.º 66, Parque de Cristina Enea, de Donostia / San Sebastián (CP 20012).

Retribución: 44.705,36 € brutos anuales (importe a 2026, al que se aplicarán las actualizaciones que procedan para el resto de la plantilla de Cristina Enea).

La jornada de trabajo será a tiempo completo y de 1.591,74 horas anuales.

*Base segunda. Condiciones de participación (o requisitos mínimos).*

Podrán tomar parte en el proceso de selección las personas que acrediten estar en posesión, en la fecha de finalización del plazo establecido para la presentación de solicitudes de participación, de los siguientes requisitos mínimos:

— Nacionalidad: tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea. En relación con las personas nacionales de otros Estados, si tienen residencia legal en el Estado español, podrán acceder al empleo en todo caso cumpliendo los restantes requisitos de la convocatoria.

— Tener cumplidos 16 años de edad y no exceder de la edad máxima de jubilación ordinaria en la fecha en que finalice el plazo de solicitud de participación.

— Titulación: poseer titulación académica oficial superior en Bellas Artes, Antropología, Ciencias Sociales o similar, con experiencia demostrable en la gestión de proyectos culturales, la creación y/o comisariado de exposiciones y su certificación ambiental. Se valorará como mérito la formación complementaria en ámbitos relacionados con movimientos sociales y sostenibilidad.

— Euskera: se deberá acreditar estar en posesión de título acreditativo de nivel C1 del marco europeo o equivalente, o, en su caso, certificación para la aplicación de las exenciones previstas en el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de la exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera.

— Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas: no padecer enfermedad ni estar afectado/a por limitación física o psíquica incompatible con el desempeño de las correspondientes funciones.

— No haber sido separado/a, mediante expediente disciplinario, del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para ejercer funciones similares a las que desempeñaba en el

EK\CV GAO-I-2026-04684

estatu bateko nazionalitatea izanez gero, ezgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta bere estatuan, baldintza berberetan, enplegu publikora iristea eragozten duen diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea.

— Betetzen ziren eginkizunen antzekoak betetzeko gaitasungabetua ez izana, oso hutsegite larria egiteagatik lan-kontratuko langileak diziplinaz kaleratzeko zehapenagatik.

Izangaiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dituzte baldintzak, eta prozesuaren amaierara arte mantendu beharko dituzte. Hala ere, prozeduraren edozein fasetan egiaztapena eskatu ahal izango zaie, eta, bete ezean, hautaketa-prozesutik kanpo utzi ahal izango dira.

*Hirugarren oinarria. Parte hartzeko eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.*

Eskabideak oinarri hauei erantsitako eredu ofizialaren arabera aurkeztuko dira, Eranskin gisa, eta Cristina Enearen webgunean ere eskuragarri egongo da, bai eta hautaketa-prozesuaren garapenean Cristina Eneari lagunduko dioen enpresaren weborrian ere.

Azken batean, prozesuan onartua izateko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

— Parte hartzeko eskabidea: oinarri hauen eranskin gisa erantsitako ereduaren arabera beteta.

Bigarren oinarrian eskatutako baldintzak betetzen direla adierazi beharko da, bai eta merezimenduak baloratzeko fasean baloratu beharreko datuak ere. Hala ere, datu horiek agiri bidez egiaztatzeko, berariazko epe bat irekiko da hautaketa- prozesuan zehar.

— Curriculum vitae eguneratua: izangaiak bete beharreko lanpostuaren definizioari dagokionez egokia dela egiaztatzeko moduan egin beharko da dokumentua.

— Lan-bizitzari buruzko txostena: Tesorería de la Seguridad Socialek emana, edo lan-kontratuen amaiera-data eta iraupen osoa egiaztatzen duen beste agiriren bat. Horrekin batera, lankontratuak eta enpresa-ziurtagiriak aurkeztu beharko dira. Ziurtagiri horietan, betetako lanpostuaren edo lanpostuen edukia, lanbide-kategoria eta betetako eginkizunak jaso beharko dira.

— Euskara-ziurtagiria: Europako esparruko C1 mailako titulua edo baliokidea, edo, hala badagokio, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan aurreikusitako salbuespenak aplikatzeko ziurtagiria (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskarazko hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteari buruzkoa).

— Eskatutako gutxieneko titulazioa: bigarren oinarrian xedatutakoaren arabera.

Gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza batean dauden agiriak zinpeko itzultzaileak itzulita aurkeztu beharko dira.

Eskabideak, behar bezala beteta, eta eskatutako dokumentazioarekin batera, posta elektronikoz bidaliko dira hautaketacristinaenea@lksnext.com helbidera (postaren gaian «Cristina Enea Kultura-Expo» erreferentzia adieraziz), 2026ko irailaren 11n amaituko den epearen barruan.

Ez da onartuko epez kanpo edo oinarri honetan adierazitakoa ez den beste bide batetik aurkeztutako eskaerarik.

Baldintzak betetzen ez badira, edo aurkeztutako dokumentazioa edo datuak faltsuak edo zehaztugabeak badira, hautagaia hautatzeko prozesutik kanpo uztea erabakiko da, faltsutzeagatik izan ditzakeen erantzukizunei kalterik egin gabe.

empleo o cargo público del que hubiese sido separado/a o inhabilitado/a. En el caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitado/a o en situación equivalente ni haber sido sancionado/a disciplinariamente o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos, el acceso al empleo público.

— No haber sido inhabilitado/a para el ejercicio de funciones similares a las que se desempeñaban, por una sanción de despido disciplinario de personal laboral por la comisión de una falta muy grave.

Los/as aspirantes deberán reunir los requisitos en la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes y mantenerlos hasta el final del proceso, sin perjuicio de que en cualquier fase del procedimiento se les podrá solicitar su acreditación y, en caso de no cumplirlos, podrá procederse a su exclusión del proceso de selección.

*Base tercera. Solicitudes de participación y documentación a presentar.*

Las instancias se presentarán según el modelo oficial incorporado a las presentes bases como anexo, y que se encontrará también disponible en la página web de Cristina Enea y en la de la empresa que auxilie a Cristina Enea en el desarrollo del proceso de selección.

En definitiva, se deberá presentar, para ser admitido/a en el proceso, la siguiente documentación:

— Solicitud de participación: cumplimentada según el modelo adjunto como anexo a las presentes bases.

Se deberá hacer constar que se reúnen las condiciones exigidas en la base segunda, así como los datos a valorar en la fase de valoración de méritos, si bien para la acreditación documental de los mismos se abrirá un período específico durante el proceso de selección.

— Curriculum vitae actualizado: deberá elaborarse de manera que se acredite la idoneidad de la persona aspirante en relación con la definición del puesto a cubrir.

— Informe de vida laboral: expedido por la Tesorería de la Seguridad Social u otro documento acreditativo de la fecha de finalización y de la duración íntegra del/de los contrato/s de trabajo, debiendo acompañarse del/de los contratos de trabajo y de certificaciones de empresa en las que conste el contenido del o de los puestos de trabajo desempeñados, categoría profesional y funciones desempeñadas.

— Certificado de euskera: título acreditativo de nivel C1 del marco europeo o equivalente, o, en su caso, certificación para la aplicación de las exenciones previstas en el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de la exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera.

— Titulación mínima requerida: según lo dispuesto en la base segunda.

Cualquier documentación que esté en un idioma distinto al castellano o al euskera deberá presentarse traducida por traductor jurado.

Las instancias se enviarán, debidamente cumplimentadas, junto con la documentación requerida, por correo electrónico, a la dirección hautaketacristinaenea@lksnext.com (indicando en el asunto del correo la referencia «Cristina Enea Kultura-Expo), en el plazo que finalizará el día 11 de septiembre de 2026.

No se admitirá ninguna solicitud que haya sido presentada fuera de plazo o por un cauce distinto al indicado en la presente base.

En el supuesto de incumplimiento de los requisitos, o de que la documentación o los datos aportados fuesen falsos o inexactos, se acordará la exclusión del proceso de selección de la persona candidata, sin perjuicio de las responsabilidades en que pudiera haber incurrido por falsedad.

EK\CV GAO-I-2026-04684

*Laugarren oinarria. Hautagaiak onartzea.*

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, onartutako eta baztertutako izangaien behin- behineko zerrenda argitaratuko da Cristina Enearen webgunean, bai eta hautaketa-prozesuan Cristina Eneari lagunduko dioen enpresaren weborrian ere.

Zerrenda horretatik kanpo geratzen diren pertsonek 5 egun balioduneko epea izango dute, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, zuzen daitezkeen akatsak zuzentzeko edo egoki iriztendituzten alegazioak aurkezteko.

Alegaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da. Halakorik balego, behin betiko zerrenda onartzen duen beste ebazpen batean baietsiko edo ezetsiko dira, eta behin-behinekoaren modu berean argitaratuko da.

*Bosgarren oinarria. Hautaketa batzordea.*

Ordenamendu juridikoaren arabera, Hautaketa Batzordeak oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu, eta hautaketa-prozesuko fase bakoitza behar bezala garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu. Halaber, fase bakoitzaren emaitzak baliozkotu eta sortzen diren gorabehera guztiak ebatziko ditu.

Hautaketa Batzordeak neurri egokiak hartuko ditu idatzizko ariketen edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko, bai eta horiek zuzentzeko ere, parte hartzen duten pertsonen nortasuna ezagutzen ez dela bermatuz.

Hauek izango dira Hautaketa Batzordeko kideak:

Presidentea: Jose M.ª Hernández Gómez Barrera (Cristina Enearen Zuzendari-Kudeatzailea).

Batzordekidea: Arantza Mariskal Balerdi (Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroko Medialab Tabakaleraren arduraduna).

Batzordekidea: Nerea Izagirre Elizondo (San Telmo Museoaren Ikerketa eta Behin betiko erakusketaren arduraduna).

Idazkaria: Iker Aranberri Sarasua (Cristina Enearen Komunikazioa teknikaria).

*Seigarren oinarria. Hautaketa-prozesuaren garapena.*

Ondoren, hautaketa-prozesuaren faseak definitzen dira, aldez aurretik egingo diren ordenaren arabera. Nolanahi ere, bosgarren oinarriaren arabera eratuko den Hautaketa Batzordeak probak egiteko beste ordena bat ezarri ahal izango du hautaketa-prozesua behar bezala garatzeko, bai eta egun berean proba bat baino gehiago egitea ere.

Amatasunari behar den babesa emateko, jaio aurreko zein jaio ondoko aldietan, eta kontuan hartzeko guraso bakarreko familiek kontziliaziorako duten zailtasun erantsia, sexuagatiko diskriminazio-egoerak saihesteko, Hautaketa Batzordeak, hala, hautagaiak agertzea eskatzen duten beste jarduketa batzuk egiten diren prozesuetan, haurdunaldi, erditze edo edoskitzaroko egoerak, behar bezala egiaztatuta badaude, egintza egiteko denboraren edo lekuaren inguruabarrak aldatzea justifikatu ahal izango duela kontutan hartuko du. Aldaketa-eskaerei erantzuteak berekin ekarriko du pertsona interesdun guztien lehia-berdintasunaren printzipioa bermatzeko beharrezkoak eta egokiak diren antolaketa-neurriak hartzea.

Hautaketa-prozesuak honako fase hauek ditu:

1. fasea. Ezagutzak eta gaitasunak aztertzea (nahitaezkoa eta baztertzailea): bete beharreko lanpostuaren xedearekin eta eskakizunekin lotutako proba aptitudinalak eta psikoteknikoak egitean datzana.

Gehienez 45 puntu emango dira. Gutxienez 25 puntu lortu beharko dira fase hau gainditzeko.

*Base cuarta. Admisión de aspirantes.*

Expirado el plazo de presentación de solicitudes, se publicará en la página web de Cristina Enea, y en la de la empresa que auxilie a Cristina Enea el proceso de selección, el listado provisional de personas aspirantes admitidas y excluidas.

Las personas que, en la referida lista, figuren excluidas dispondrán de un plazo de 5 días hábiles, a partir del día siguiente al de la publicación, para subsanar los defectos advertidos susceptibles de subsanación o para plantear las alegaciones que estimen oportunas.

La lista provisional se entenderá elevada a definitiva si no se presentasen alegaciones. Si las hubiera, serán estimadas o desestimadas, en su caso, en una nueva resolución por la que se apruebe la lista definitiva y que se hará pública de la misma forma que la provisional.

*Base quinta. Comité de selección.*

De acuerdo con el ordenamiento jurídico, el Comité de Selección resolverá todas las dudas que surjan en la aplicación de las presentes bases, y adoptará los acuerdos necesarios para el buen orden en el desarrollo de cada fase del proceso de selección. Asimismo, validará los resultados de cada una de las fases y resolverá cuantas incidencias se presenten.

El Comité de Selección adoptará las oportunas medidas para garantizar la confidencialidad del contenido de los ejercicios escritos, así como que sean corregidos garantizando que no se conozca la identidad de las personas que toman parte.

El Comité de Selección estará integrado por las siguientes personas:

Presidente: Jose M.ª Hernández Gómez (Director-Gerente de Cristina Enea).

Vocal: Arantza Mariskal Balerdi (Responsable Medialab Tabakalera en el Centro Internacional de Cultura Contemporánea Tabakalera).

Vocal: Nerea Izagirre Elizondo (Responsable de Investigación y Exposición permanente y del Museo San Telmo).

Secretario: Iker Aranberri Sarasua (Técnico de Comunicación de Cristina Enea).

*Base sexta. Desarrollo de proceso de selección.*

A continuación, se definen las distintas fases del proceso de selección en el orden en el que, a priori, se prevé que van a llevarse a cabo. En cualquier caso, el Comité de Selección que se constituya con arreglo a la Base quinta podrá determinar, para el buen desarrollo del proceso de selección, otro orden de realización de las pruebas, así como optar por la realización de varias pruebas en el mismo día.

Al objeto de dispensar la debida protección a la maternidad, tanto en sus periodos prenatales como posnatales, tomando en consideración la dificultad añadida de las familias monoparentales para la conciliación, con el fin de evitar en incurrir en situaciones de discriminación por razón de sexo, el Comité de Selección, en aquellos pruebas que requieran la comparecencia de las personas candidatas, las situaciones de embarazo, parto o lactancia, debidamente acreditadas, tendrá en cuenta que las mismas podrán constituir causa que justifique la modificación de las circunstancias de tiempo o lugar de celebración del acto. La atención de las solicitudes de modificación llevará aparejadas las medidas organizativas necesarias y adecuadas para garantizar el principio de igualdad de concurrencia de todas las personas candidatas.

El proceso de selección se divide en las siguientes fases:

Fase 1. Análisis de conocimientos y aptitudinal (obligatorio y eliminatorio): consistente en la realización de una serie de pruebas aptitudinales y psicotécnicas relacionadas con el objeto y requerimientos del puesto a cubrir.

Se valorará sobre un máximo de 45 puntos. Será necesario obtener al menos 25 puntos para superar esta fase.

EK\CV GAO-I-2026-04684

2. fasea. Elkarrizketa eta analisi pertsonala eta konpetentziala (nahitaezkoa eta baztertzailea): lanpostuaren ezaugarrietarako hautagaien egokitasun pertsonala eta konpetentziala baloratzeko elkarrizketa pertsonal batzuk egitean datza. Elkarrizketa eta azterketa pertsonalaren fase honetan, lanpostuaren berezko zereginak behar bezala garatzeko eskatzen diren konpetentzia generikoak eta zeharkakoak baloratuko dira.

Elkarrizketak eredu egituratu eta homogeneo baten arabera egingo dira, objektibotasuna bermatuz. Besteak beste, honako hauek jorratuko dira:

— Talde-lana.

— Zereginen plangintza eta koordinazioa.

— Pertsonen kudeaketa.

— Problemak ebaztea.

— Pertsonen arteko trebetasunak.

— Bezeroa kudeatzeko gaitasuna, harremanak eta komunikazioa.

— Proaktibitatea.

Gehienez 40 puntu emango dira. Gutxienez 30 puntu lortu beharko dira fase hau gainditzeko.

3. fasea. Merezimenduen balorazioa: baloratuko dira baldin eta parte hartzeko eskabide orrian, Curriculum vitae eguneratuan edota Lan-bizitzari buruzko txostenean alegatu badira, eta behar bezala egiaztatu badira.

0,1 puntu emango dira prestakuntza-ordu bakoitzeko. Gehienez 15 puntu emango dira.

*Oharra:* merezimendu gisa baloratuko dira, lan-esperientziaren ondorioetarako, hautagaiak senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran egon diren denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea helburu duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa erantzukidetasunez uztartzen laguntzea helburu duten denbora, bai eta enplegatu publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak erabili dituzten denbora ere.

Merezimenduak egiaztatzeko agiriak 2. fasean aurkeztuko dira. Hautagaiek baloratu beharreko merezimendu guztiei (jatorrizkoa eta fotokopia) dagozkien egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte. Merezimendu horiek aldez aurretik alegatu beharko dira parte hartzeko eskabidean Curriculum vitae eguneratuan edota Lan-bizitzari buruzko txostenean alegatu badira, hirugarren oinarrian ezarritakoaren arabera, eta 3. fase honetan kontuan hartuko dira.

Alegatutako merezimenduak behar bezala egiaztatzen ez badira ez dira balorazioan kontuan hartuko.

* Oharrak.

Izangaiei ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie.

Deitzean pertsona bat edozein ariketatara aurkezten ez bada, automatikoki galduko da ariketa berean eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea, eta, ondorioz, hautaketa- prozesutik kanpo geratuko da.

Informazio guztia Cristina Enearen webgunean, bai eta hautaketa-prozesuan Cristina Eneari lagunduko dioen enpresaren weborrian ere, argitaratuko da, eta deialdiak egiteko gutxienez 72 ordu beharko dira. Hautaketa-prozesuko fase bakoitzaren emaitza argitaratuko da, lortutako puntuazioak eta sailkapen-ordena adierazita. Alegazioak aurkezteko epea 2 egun baliodunekoa izango da, argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Ariketak egiteko denbora eta/edo bitartekoak egokituko zaizkie dibertsitate funtzionala duten pertsonei, baldin eta egokitza-

Fase 2. Entrevistas y análisis personal y competencial (obligatorio y eliminatorio): consistirá en la realización de una entrevista individual y otras pruebas individuales y/o grupales orientadas a la valoración del grado de adecuación de la candidatura a las características del perfil del puesto al que opta conforme a las presentes bases. En esta fase de entrevista y análisis personal se valorarán tanto las competencias genéricas como transversales demandadas para el buen desarrollo de las tareas propias del puesto.

Las entrevistas se realizarán bajo un modelo estructurado y homogéneo, garantizando la objetividad, y se abordarán, entre otros:

— Trabajo en equipo.

— Planificación y coordinación de tareas.

— Gestión de personas.

— Resolución de problemas.

— Habilidades interpersonales.

— Capacidad de gestión de cliente, relaciones y comunicación.

— Proactividad.

Se valorará sobre un máximo de 40 puntos. Será necesario obtener al menos 30 puntos para superar esta fase.

Fase 3. Valoración de méritos: se valorarán siempre que hayan sido alegados a través del formulario de solicitud de participación, en el Curriculum vitae actualizado y/o en el Informe de Vida Laboral, y estén debidamente acreditados.

Se otorgarán 0,1 puntos por cada hora de formación. Se valorarán sobre un máximo de 15 puntos.

*Nota:* se valorará como méritos, a los efectos de experiencia profesional, el tiempo durante el que las personas candidatas hayan permanecido en la situación de excedencia por cuidado de familiares o por violencia de género, el tiempo atribuible a reducciones de jornada o permisos que tengan por finalidad prevista proteger la maternidad y paternidad, o facilitar la conciliación corresponsable de la vida personal, familiar y laboral, así como el tiempo en el que las empleadas públicas hayan hecho uso de permisos por razón de violencia de género.

La presentación de la documentación acreditativa de los méritos se realizará en la fase 2. Las personas candidatas deberán aportar la documentación acreditativa correspondiente a todos los méritos a valorar (original y fotocopia), que deberán haber sido previamente alegados, todos ellos, en la solicitud de participación, en el Curriculum vitae actualizado y/o en el Informe de Vida Laboral, de conformidad con lo establecido en la base tercera, y que serán tenidos en cuenta en esta fase 3.

La no acreditación suficiente o adecuada de los méritos alegados supondrá que no sean tenidos en cuenta en la valoración.

* Observaciones.

Las personas aspirantes serán convocadas para cada ejercicio en llamamiento único.

La no presentación de una persona a cualquiera de los ejercicios en el momento de ser llamada determinará automáticamente el decaimiento de su derecho a participar en el mismo ejercicio y en los sucesivos, quedando excluida, en consecuencia, del proceso selectivo.

Toda la información se publicará en la página web de Cristina Enea, y en la de la empresa que auxilie a Cristina Enea el proceso de selección, siendo la antelación mínima para la realización de las convocatorias a las pruebas de 72 horas. Se publicará el resultado de cada una de las fases del proceso de selección, con indicación de las puntuaciones obtenidas y del orden de clasificación. El plazo para presentar alegaciones será de 2 días hábiles desde la fecha de la correspondiente publicación.

Se adaptará el tiempo y/o los medios de realización de los ejercicios a aquellas personas con diversidad funcional que pre-

EK\CV GAO-I-2026-04684

pena behar badute, parte hartzeko eskaera adierazi eskatu badute eta justifikatu badute, eta Hautaketa Batzordeak positiboki baloratu badu eskatutako neurriak ematea bidezkoa den, gainerako parte-hartzaileen aukera- berdintasuna izan dezaten, betiere, horrekin probaren edukia desitxuratzen ez bada, eta eskatutako gaitasun-maila murrizten edo kaltetzen ez bada.

Hautaketa Batzordeak une oro eskatu ahal izango die hautagaiei beren burua behar bezala identifikatzeko, eta, horretarako, NANa edo beste edozein agiri eduki beharko dute ariketa bakoitzean, betiere, Batzordearen iritziz, izangaiaren nortasuna behar bezala egiaztatzen badute (pasaportea, gidabaimena, atzerritarraren nortasun- zenbakia, etab.). Hala egin ezean, kanpoan geratuko dira.

*Zazpigarren oinarria. Kontratazioa.*

Behin betiko sailkapenaren ordena hautaketa-prozesua osatzen duten faseetan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du, betiere puntuazioak ezarritako irizpideen arabera gainditu badira.

Berdinketarik egonez gero, hurrenkera irizpide hauen arabera ezarriko da:

— 2. fasean puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.

— 1. fasean puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.

— Zozketa bidez.

*Oharra:* trebakuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emateko klausula ez da aplikatzekoa, Cristina Enean emakumeen ordezkaritza % 40tik gorakoa baita.

Hautatutako izangaiak, horretarako ezartzen den epean, hautaketa-prozesuan zehar modu frogagarrian egiaztatu ez den dokumentazioari buruz eskatzen zaion dokumentazioa aurkeztu beharko du, eta azterketa medikoa, nahitaezkoa eta baztertzailea, egingo du. Ondoren, hala badagokio, lantaldean sartuko da eta Cristina Enearen araudiaren arabera arautuko da.

Dokumentazioa aurkezten ez badu edo azterketa medikoak ez badu hautagaiaren gaitasuna egiaztatzen, pertsona horrek kontratatzeko eskubide guztiak galduko ditu.

Kontratatzeko proposatutako izangaiak 6 hilabeteko probaldia izango du. Probaldian, langileak betetzen duen lanpostuari dagozkion eskubideak eta betebeharrak izango ditu, lan-harremana suntsiaraztetik eratorritakoak izan ezik, horiek alderdietako edozeinek eskatuta egin baitaitezke probaldian zehar. Izangaiak probaldia gainditzen ez badu, kontrataziorako eskubide guztiak galduko ditu.

Hautatutako pertsona bati Cristina Enean sartzeko deia egiten bazaio, hautatutako pertsonak lanpostuari uko egiten diola adierazi ahal izango du.

Izangaiek probetan oinarrietan aurreikusitako gutxieneko puntuazioa lortzen ez badute, hautaketa-prozesua hutsik geratuko da. Kasu horretan, Cristina Eneak beste deialdi bati ekin ahal izango dio.

*Zortzigarren oinarria. Datu pertsonalen tratamendua.*

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko ditu Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez; eta aplikagarri diren bestelako arauak.

cisen adaptación, la hayan solicitado y justificado en la solicitud de participación, y el Comité de Selección haya valorado positivamente la procedencia de la concesión de las medidas solicitadas, de forma que gocen de igualdad de oportunidades respecto al resto de participantes, siempre que, con ello, no se desvirtúe el contenido de la prueba, ni se reduzca o menoscabe el nivel de aptitud exigido.

El Comité de Selección podrá, en todo momento, requerir a las personas aspirantes para que se identifiquen debidamente, a cuyo efecto habrán de concurrir a la realización de cada ejercicio provistas del DNI o cualquier otro documento, que, a juicio del Comité, resulte suficientemente acreditativo de la identidad de la persona aspirante (pasaporte, permiso de conducir, Número de Identidad de Extranjero, etc.). En caso de no hacerlo, quedarán excluidas.

*Base séptima. Incorporación.*

El orden de clasificación definitivo estará determinado por la suma de las puntuaciones obtenidas en el conjunto de las fases de las que consta el proceso de selección, siempre que estas hayan sido superadas según los criterios establecidos.

En caso de empate, el orden se establecerá atendiendo a los siguientes criterios:

— A favor de quien haya obtenido mayor puntuación en la fase 2.

— A favor de quien haya obtenido mayor puntuación en la fase 1.

— Por sorteo.

*Nota:* la cláusula por la que, en caso de existir igualdad de capacitación, se dé prioridad a las mujeres no es de aplicación ya que en Cristina Enea la representación de estas es superior al 40 %.

La persona aspirante que resultara seleccionada deberá presentar, en el plazo que se establezca al efecto, la documentación que le sea requerida referente a aquella que no hubiera sido comprobada fehacientemente a lo largo del proceso de selección y accederá al reconocimiento médico, de carácter obligatorio y eliminatorio, tras lo cual, en su caso, se incorporará a la plantilla y se regirá por la normativa de Cristina Enea.

En el caso de que no presentase la documentación o el reconocimiento médico fuera desfavorable o no certificase la aptitud de la persona candidata, esta perderá todos los derechos a su contratación.

La persona trabajadora tendrá un período de prueba de 6 meses. Durante el periodo de prueba, la persona trabajadora tendrá los derechos y obligaciones correspondientes al puesto de trabajo que desempeñe, excepto los derivados de la resolución de la relación laboral, que podrá producirse a instancia de cualquiera de las partes durante su transcurso.

Ante un llamamiento a una persona seleccionada para incorporarse a Cristina Enea, la persona seleccionada podrá manifestar su renuncia al puesto.

En el supuesto de que ninguna de las personas aspirantes alcance en las pruebas la puntuación mínima prevista en las bases, el proceso de selección se declarará desierto. En este caso, Cristina Enea podrá iniciar una nueva convocatoria.

*Base octava. Tratamiento de datos personales.*

El tratamiento de la información tendrá en cuenta lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de sus datos personales y a la libre circulación de estos datos, y en las demás disposiciones que resulten de aplicación.

EK\CV GAO-I-2026-04684

Hautagaiek beren eskabideetan emandako datu pertsonalak eta oinarri hauetan araututako prozesuan zehar Cristina Eneari ematen dizkiotenak, erakunde horrek tratatuko ditu Tratamenduaren Arduradun gisa, hautaketa-prozesuan duten parte-hartzea kudeatzeko eta interesdunek kontratu aurreko neurriak (enplegu-eskaera) eskatzeko.

Cristina Eneak hautagaien datu pertsonalak gordeko ditu hautaketa-prozesua behar bezala gauzatzeko behar-beharrezkoa den denboran, baita erakundeak legezko betebeharrak betetzeko bete behar dituen kontserbazio-epe gehigarrietan ere.

Sektore publikoan gardentasun-printzipioa aplikatuz oinarri hauetan berariaz aurreikusten diren argitalpenak alde batera utzita, eta legez eska daitezkeen kasuetan izan ezik, hautagaien datu pertsonalak ez zaizkio hirugarrenei jakinaraziko. Datu pertsonalen nazioarteko transferentziak egitea ere ez dago aurreikusita.

Parte hartzeko eskabidean, hautagaiek berariazko baimena eman beharko dute beren datuak lagatzea onartzeko.

Hautagaiek eskubidea izango dute (i) beren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, eramateko edo, hala badagokio, tratamenduari aurka egiteko, cristinaenea@donostia.eus helbidera bidalitako idatzizko eskaera baten bidez; eta (ii) erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Agentzian edo beste edozein kontrol-agintaritza eskudunetan, batez ere beren eskubideak baliatzean gogobetetzerik lortu ez dutenean.

Los datos personales facilitados por las personas candidatas en sus respectivas solicitudes y aquellos otros que, durante el proceso regulado en las presentes Bases, faciliten a Cristina Enea, serán tratados por esta entidad como Responsable del Tratamiento, con la finalidad de gestionar su participación en el proceso de selección y sobre la base de la solicitud de medidas precontractuales por parte de los interesados (solicitud de empleo).

Cristina Enea conservará los datos personales de las personas candidatas durante el tiempo estrictamente necesario para la adecuada ejecución del proceso de selección, así como por los plazos adicionales de conservación que la entidad deba observar para el cumplimiento de sus obligaciones legales.

Al margen de las publicaciones que, en aplicación del principio de transparencia en el sector público, se prevén expresamente en las presentes bases, y salvo en aquellos supuestos en los que resulte legalmente exigible, los datos personales de las personas candidatas no serán comunicados a ningún tercero. Tampoco está prevista la realización de transferencias internacionales de datos personales.

En la solicitud de participación se requerirá el consentimiento expreso de los/as aspirantes para aceptar la cesión de sus datos.

Las personas candidatas tendrán derecho a (i) solicitar el acceso a sus datos personales, así como a su rectificación, supresión, limitación de su tratamiento, a la portabilidad de los mismos o a oponerse a su tratamiento, cuando proceda, mediante solicitud escrita dirigida a la dirección cristinaenea@donostia.eus y (ii) presentar una reclamación ante la Agencia Española de Protección de Datos o ante cualquier otra Autoridad de Control competente, especialmente cuando no hubieran obtenido satisfacción en el ejercicio de sus derechos.

EK\CV GAO-I-2026-04684

cristina enea
FUNDAZIOA

**ERANSKINA / ANEXO**

**CRISTINA ENEA FUNDAZIOARAKO KULTURA- ETA ERAKUSKETA-PROIEKTU TEKNIKARI BATEN HAUTAKETA-PROZESUAN PARTE HARTZEKO ESKAERA**

**SOLICITUD DE PARTICIPACIÓN EN EL PROCESO DE SELECCIÓN DE UN/A TECNICO/A DE PROYECTOS CULTURALES Y EXPOSITIVOS PARA FUNDACIÓN CRISTINA ENEA**

**Eskatzailea / Solicitante**

<table>
<tr><td>Izena / Nombre</td><td>Lehen abizena / Primer apellido</td><td>Bigarren abizena / Segundo apellido</td></tr>
<tr><td colspan="2">NAN / DNI</td><td>Jaiotze data / Fecha de nacimiento</td></tr>
<tr><td colspan="2">Telefonoa</td><td>e-mail:</td></tr>
<tr><td colspan="3">Dibertsitate funtzionala izanez gero, hauta probak egiteko denbora eta bitarteko doitzeak eta egokitzeak beharko dut?<br><br>En caso de diversidad funcional ¿necesitaré adaptaciones y ajustes de tiempo y medios para la realización de la/s prueba/s?<br><br>[BAI/SI] [EZ/NO]</td></tr>
<tr><td colspan="3">Zortzigarren oinarrian jasotakoaren arabera, datu pertsonalen tratamenduarena, nire datuak lagatzea onartzen dut.<br><br>Acepto la cesión de mis datos conforme a lo recogido en la Base octava, de Tratamiento de datos personales<br><br>[BAI/SI] [EZ/NO]</td></tr>
</table>

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak I Patronos: DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa ETORKIZUNA ORAIN Es futuro

Babesle iraunkorra I Colaborador permanente: añarbe urak aguas

EK\CV GAO-I-2026-04684

cristina enea
FUNDAZIOA

**Titulazio akademiko ofiziala / Titulación académica oficial**

| Titulua / Titulación | Erakundea / Entidad | Eskuratze data / Fecha de obtención |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |

**Euskara / Euskera**

| Ezagutza maila / Nivel de conocimiento | Ziurtatzen duen erakundea / Organismo certificador | Eskuratze data / Fecha de obtención |
|---|---|---|
| | | |

**Esperientzia profesionala arlo publikoan edo pribatuan / Experiencia profesional en ámbito público y/o privado**

| Erakundea / Entidad | Hasiera / Inicio | Bukaera / Fin | Lanpostua / Puesto | Eginkizunak / Funciones |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak I Patronos: DONOSTIA SAN SEBASTIÁN · Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa · ETORKIZUNA ORAIN Es futuro

Babesle iraunkorra I Colaborador permanente: añarbe urak aguas

cristina enea
FUNDAZIOA

**Merezimenduak (prestakuntza ikastaroak) / Méritos (cursos de formación)**

| **Izena / Denominación** | **Erakundea / Entidad** | **Eskuratze data / Fecha de obtención** | **Orduak/ Horas** |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

Dokumentua sinatzerakoan:

Hautaketa-prozesuan onartua izatea eskatzen dut eta gorago adierazitako datu guztiak benetakoak direla aitortzen dut, hala nola deialdiaren BIGARREN INARRIAN eskatzen diren betekizunak betetzen ditudala.

Hautaketa-prozesua arautzen duten baldintza guztiak ezagutzen ditudala aitortu eta onartzen dut.

Al firmar el presente documento:

Solicito mi admisión en el proceso de selección y declaro que son ciertos todos los datos arriba consignados, así como que reúno los requisitos mínimos exigidos en la BASE SEGUNDA de la convocatoria.

Declaro conocer y aceptar todas las condiciones que regulan el proceso de selección.

Sin./Fdo…………………………………………..

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak I Patronos: DONOSTIA SAN SEBASTIÁN; Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa; ETORKIZUNA ORAIN Es futuro
Babesle iraunkorra I Colaborador permanente: añarbe urak aguas